

MENDE-BUKAERAKO MUNDUA: EZAUGARRIAK ETA ERRONKAK

Orrialde hauetan *mende-bukaera* esamoldea ez da bere zentzu zehatzean erabilia, abiapuntu edo aitzakiatzat besterik ez da hartzen gaur egungo egoerari buruzko zertzelada batzuk zirriborrateaz gain hausnarketa bat egiteko asmoz¹.

Historian barrena, esanahi bereziak erantsi izan zaizkie mende-bukaerei, eta are deigarriagoak milakadenei, oraingo hau bietariko gertatzen delarik: mende- eta, halaber, milakada-bukaera. Apokaliptika-kutsuko joeretatik landa, mende-bukaeretako gizon-emakumeen ezaugarrietariko bat *krisialdia* da, hau da, gizakiari, historiari eta bizitzari —orohar— buruzko kezketan hagitz indartsu erreparatzen dutela².

¹ Aldi jakin bati deitzeko erabili izan da *mende-bukaera* esamoldea Europan. Aldi hori, gehien batentzat, VICTOR HUGOren heriotzaz hasten da, 1885ean, eta I. Mundu-Gerratearen hasieraz amaitzen, 1914an. Jatorria frantsesa duen arren, Europan barrena hedatu zen jada 1890az geroztik (ikus ABELLÁN, J.L.: *Historia crítica del pensamiento español*. V. liburukia: *La crisis contemporánea II*. Espasa-Calpe, Madrid, 1989, 15. orr.).

² *Mende-bukaeraz* hitzegiterakoan, *gainbehera-* eta *nekadura-*aldia dela esan ohi da; gizakia ikusle bat baino ez dela, eguzkia arratsean nola sartzen den adi dagoena; mende-bukaerak jasan egiten direla, etab. (ikus GÓMEZ, PÉREZ, R.: *Cómo entender este fin de siglo*. Ediciones del Drac, Barcelona, 1988, 160. orr.). Hausnarketa honetan, ordea, aurrera egin ahala ikusiko denaren itzaropenaz, krisialdia ez da zentzu ezezkorrean ulertua izango: nekadura eta arriskuarekin batera abagadunea ere badagokiolako.

Lerrootan XX. mendearen azkenetako kezken zutabeetariko batzuk aurkeztu nahi lirateke. Hau burutzeko, aldi honen ezaugarri nagusienetarikoak aipatuko dira lehenengo atalean, eta bigarrean, ezaugarriok gogoan direla, zenbait erronka aurkeztuko dira eginkizuntzat. Europatik begiratuta egindako hausnarketa izango da, Hego Euskal Herria berariaz delarik gogoan izango.

XX. Mende-bukaerako ezaugarriak

1. Ekonomi krisialdia eta txirotasuna

Ezaguna da hirurogeita hamargarreneneko hamarkadan petrolio-salneurriek jasandako igoeren —batik bat— eraginez pizturiko ekonomi krisialdia³. 1985az geroztik, baina, zuzperraldia ari da ezagutzen Mendebaldean. Hala ere paradoxa ezkutaezina da: zuzperraldi hau *makroekonomiari* dagokionez baino ez da nabaritzen, familietako eguneroko bizimoduari erantzuteko orduan bestelakorik gertatzen delarik. Esan ohi denez, *ekonomia ondo doa, baina pertsonak txarto*. Datuak gordinak dira. Europara mugaturik, *Europar Komunitateen Batzordeak* esandakoaren arabera, 50 milioitik gora dira pobretuak, 15 milioitik gora langabezian daudenak eta 3 milioitik gora aterpebakoak. Estatu espainiarrera adituz, FOESSaren V. Txostenak dioenez, 8 milioi pobretu dago, eta langabezi-tasa %20 ingurukoa da. Euskal Elkarte Autonomoan, Industri, Arrantza eta Nekazaritzako Sailburuak esan duenez, %24,1ean izango da langabezi tasa 1999an. Nazioarteko harremanetan oharutz gero, areagotu egiten da gordintasuna: ekonomi iharduera estatu aberatsenen artean baino ez da gertatzen gehien bat; herrialderik aberatsenetariko munduko populazioaren laurenak munduko energiaren %70 erabiltzen du eta elikagaien %60a; 2.000 milioi pobretu dira munduan eta beste 1.000 milioi pertsona leize ainube horretara erortzeko zorian daude.

³ Petrolio-salneurrien lehenengo igoera 1973an gertatu zen, eta bigarrena 1979an.

Datuokin ez da azterketa zehatz bat aurkeztu gura, errealitatearen neurrialderik lakarrenetariko baten eta, horrela izanik, arduragarrienetariko baten nondik-norakoan logikaz konturara-zi baina. Hala, bada, indartsuenak geroago eta indartsuago bilakatzen dira, eta makalenak, berriz, geroago eta makalago; honetara, indartsuak geroago eta gutxiago dira, eta makalak, geroago eta gehiago. Gutxi batzuren garapena asko batzuren azpigarapenean oin harturik eraikitzen da. Herrialde eta gizon-emakumeen arteko harremanak *darwinismoak* eskeiniriko legeen esanetara ezartzen dira. Ezinbestekotzat jotzen da ezherdintasuna. Lana bera ere, beharrean aritzeko ziurtasunik ezak eraginda, modu berri batera aditzen da. Lehiakortasuna bitarteko, elkar-laguntzarako jarrerak herdoildu egin dira. Karitate-ekintzen bidez konpondu nahi dira beharizan-egoerak⁴, eta ez dira solidaritazko ekimenak begi onez ikusten. Honenbestez, makalenak, gutxien balio dutenak eta egoerara egokitzeko gai ez direnak gizartetik at gelditzen dira, baztertuta. Ugaritzen doa oinarritzko beharizenei erantzuteko adina ez daukatenen kopurua, zer janaz batera, euren norberetasuna eta euren autoestima garatzeko lain ez daukatenen gizon-emakumeen multzoa. Era honetara, beraz, gizarte gaisoa ari da oretzen, itxaropenentzat eta goiasmoentzat aukera mutritzak eskeintzen dituen.

2. *Mundu zahala eskuera*

Begibistakoa da komunikabideen gaur eguneko hedapena. Munduaren beste muturrean jazotzen denaren berri berehala jakiteko aukera eskeintzen dute. Halatan, munduikuskera ezberdinak ezagutzeko bide bilakatu izan dira. Baina, beste alde batetik, mundu osora heltzeko ahalmena dutelako, hain zuzen, erabiliak izateko arriskua ere dadute, eta horrela gertatzen zaie askori: asmo eta interes jakin batzuren zerbitzura —edo mende— daudela. Kazatariak, beraz, iritzi-sortzaile bilakatu dira,

⁴ Gogoragarria da honetaz, 1996.eko urtarrilaren 21ean, *pobreziarren urtea* dela aurtengoa gaitzat emanik, A. Egañak Mungian kantatu zituen bertsoetarikoa baten amaiera: "Limosna ez da mesprezuaren / aurpegi polita baizik".

telesailetan biziera-mota jakin bat edo ondo pentsaturiko jakin batzuk azaltzen dira eredutzat eta komunikabideetako iragarriak berberaiek dira mundu osorako.

Gaur egun geroago eta gehiago dira bidaiatzen dutenak eta paraje bateko eta besteko berri daukatenak. Enpresak ez daukate, neurri handi batean behintzat, estatu-arteko mugarik, hauetako langileak leku batetik bestera joan behar dutelarik lanean sarri askotan. Ikasle asko atzerrira irtetzen da ikasturteren batean edo bestean. Ugaritzen doaz baita herrialde ezberdinetako senar-emazteen arteko ezkontzak ere. Jadanik susma daiteke aldaketa ikaragarria izango dela *Internet* eta bestelako informazio-sareak bitarteko.

Garapen honek here on-gaitzak ditu. Adibidez, hiru aipatzekotan, lehenbizi ondorioztatu behar dena da geroago eta arazo gehiago direla mundu-mailan bilbatuak eta, beraz, eurei buruz harturiko erabakiak eragin zabala dutela. Bigarrenez, guzti honek jarrera eta balore berriak erarazten dituela ohar daiteke. Eta hirugarrenez, kontuan izan behar da badagoela tokikotasuna eta norberetasuna galtzeko arriskurik, hau da, gizakiak osasuntsu bizitzeko behar dituen gutxiengo erreferentziak galtzeko erraztasunik.

3. Dogmen erorketa

Joan den mendearen azkenetan kritikotasun-sena biztu izan zen Mendebaldean. Betikotzat eta aldaezintzat hartuak ziren erakunderik eta pentsaerarik asko zalantzan jarri ziren. Orduz geroztik, azkarrago edo nekezago, hedatzen doa sen horrek eragindako jarrera gizon eta emakume askorengan. Honek berarekin ekarri du dogmatismoak eta ezarpenak ukatzeaz batera, elkarrizketaren eta eztabaidaren aldeko apostua, hau da, tolerantzia eta aniztasuna bezalako baloreekiko begirunea. Jakina da Estatu espainiarrean eta Hego Euskal Herrian eten handia jasan zuena bilakaera honek diktaduraldia zela-eta.

Onuragarria izateaz gain, baina, bilakaerarik gehienetan gertatzen den moduan, muturrera jotzen duen garapenik ere ba-

denez guzti honetan, dogmek craitsi beharraren craitsi beharraz, gutxiengo erreferentziak ere suntsitu egin izan dira hainbat kasutan, bideragarri izan litekeen berririk sortu gabe. Guzti honen aldaki edo ondorengoa litzateke, adibidez, zenbat eta aukera gehiago eta zabalagoak eduki orduan eta askeagotzat hartzea gizaki edo gizarte bat, gaur egun Mendebaldean arras barreiatuak dagoelako ustea, alegia; eta, baita ere, besteen alde jokatzera daramaten ekimenekiko *epeltasuna*: norberari ikutzen ez dion bitartean, egoera eta iritzi guztiak balekotzat onartzeaz parekatzen delarik aniztasuna.

4. *Mundu guztia ez da Ilustrazioan barrena abiatu*

Munduko gizarterik gehienek ez dute Ilustrazioaren galbahea iragan, ez dute euren tradizioez kritikoki hausnartu. Orandik asko dira uste dutenek euren nortasunaren behinenetarikoa osagaia, hots, euren kideak elkartzen dituen halabeharrezko bereizgarria, erlijio edo etnia jakin bat dela. Munduan diren herrialdeen kopurua gogoan izanik, ez dira horrenbeste euren gizarte antolatzeko modurik egokienatzat demokraziabideak hartu dituztenek⁵. Ez dago urrutira joan beharrik. Euskal Herrian bertan, *ezker abertzalea* deritzon mugimenduko askok ez ditu hauteskunde-emaitzak onartzen; bere ordezkariak usuenik ez doaz elkarrizketa-tokietara, eta doazenean, euren esan eta alde egiten dute; euren iritziak ezarri nahi dizkiete besteei, hiltzeko ere inolako ingerarik agertzen ez dutelarik sarritan⁶. Hala beretsuan,

⁵ Esan gabe doa testuinguru honetan *Ilustrazioa* aipatzen denean ez dela kultura eskolatua adierazi gura. Kultura eskolatua izateak lagun dezake ifustrazio-bidea hartzea, baina ez da beti horrela gertatzen: gogoangarria da, honen harira, euskal esaera zahar hura: *Jakitatetik jende prestuak ona ateratzen du; jakitatetik gaiztoak gaiztakeria* (ikus ZABALA, A.: *Esaera zaarren bilduma berria (II)*. Auspua, Tolosa, 1985, 8. orr.).

⁶ Esandako honen haritik, ez da hamitzekoa, sano erdeinagarria izan arren, sekten moduko jokeren bidez, inolako jarrera kritikorik gabe norberaren taldearekiko eta, aldi berean, jarrera kritiko gaisotiaz beste guztiarekiko, bizitza betiko markatuta gelditzera eta sarri askotan bizitza eta izatea bera ere zapuztera daroaten bitartean barrena abiataraztea oraindik nerabezeroan dauden gaztetxorik askori.

hor daude GAL bezalako talde sasiestatalak demokratikotzat hartuak diren estatuetan, legeari ixkin egin eta bere mugetatik kanpo jokatzeko dutenak, hauek ere hiltzera nahikoa ohituta.

5. *Erljio-forma berrien ugariketa*

Gizon-emakume *modernoak*, bere adin-nagusitasuna aldarrikatzeaz batera, erlijioa erauztea eskatu zuen. Hala ere, gaur egun, sekularitasuna nahikoa sendo hedaturik izan arren, gero-ago eta gehiago dira sortzen ari diren erlijio-jokabide ezberdinak. Durkheim-i kasurik ez bazitzaion egin ere, *badirudi*, ikusitakoak ikusita, huts handirik gabe esan daitekeela gizakiari dagokion neurrialdi edo dimentsioa dela erlijioa.

Guzti hori horrela izanik, beste kontu bat da nolako agerkerak hartzen dituen erlijio-bizikizunaren beharizan horrek. Hala, bada *erlijio zibila* deritzona: honen agerkerak liraterik abertzaletasun-mota batetako eta sozialismo-tankera batetako adierazpide eta beste, erakundeen erritualak, sistema delakoa-ren mitoa, etab.; bada *erlijio sekularra*: honen agerkerak liraterik gazte-munduaren inguruko musika eta gaztetasunarekiko jaidura edo irrika, kirola eta honi erasten zaizkion erritualak, gorputza gurraketa-gai bihurtzea, ekologismoa ulertzeko modu jakin batzuk, etab.; bada *mistika*-joeretarako sentiberatasuna: Hare Krishna-k, Sai Baba-k, Osho Rajneesh-ek eta orohar ekialdetik datozen eskeintzak badute, behintzat, arrakastarik; bada New Age bezalako mugimendurik; bada ezkutukorako eta esoterismorako joerarik⁷. Ikus daitekeenez, hauek guztiok *jaungoikorik gabeko erlijioari* dagozkion agerkerak dira.

6. *HIESA*

1981.etik *Harturiko Imuno Eskasia Sindromea* bezala ezagutua den gaisotasuna mendebukaerako edo XX. mende-

⁷ Erljio-forma berriez, ikus J.M. Mardones-en honako lana: *Para comprender las nuevas formas de la religión : la reconfiguración postcristiana de la religión*. Verbo Divino, Estella, 1994, 57-145. orri.

ko izurritetzat aurkeztu dute batzuk, eta ez gutxi, "mundu moralbako eta zakar" honetaz ohartarazteko Jaungoikoaren zigortzat ere bai⁸. Gaisotasuna gelditzeko aurkikuntzaren baten edo bestearen berri izan arren egunokín komunikabideetan, kontua da 2000. urtean 30-40 milioiraino hel litekeela kutsatuen kopurua, eraginduen %90a Afrikaldean izango delarik.

Egoera honek bere ondorioak dakartza. Gaisoen beharrizaneñ erantzuteko osasun- eta gizarte-zerbitzu berriak sortu eta eskeini behar dira. Hau gauzatzeko, jakina, ekonomi eta personal-inbertsioak egin beharra dago; nahiz eta, bestalde, guttia behar da argitu, atarramendu ederrak ateratzen dituen HIESaren inguruan garaturiko industriak⁹. Gizon eta emakumeen arteko harreman interpersoneletan ere (ezkonduta egon arren) bere eragina izan du errealtate honek (zer esanik ere ez gizon-gizon edo emakume-emakume artekoetan), batez ere sexualitatea bizitzeko moduan.

7. Nahasitasuna eta konplexutasuna

Azkenengo urteotan munduan ezaguturiko aldaketak kontuan izanik, badirudi iraulketa bat-edo gertatu dela. Berlin-go harresia eraitsia izan da, eta berarekin batera erregimen komunistak ere bai. Varsoviako Ituna ezerezetan gelditu da. Amaitu da *gudate hotza* zeritzona. Zibernetikaren mundu berria zabaldu izan da. Genetika-ikerketen garapenak aukera asmatezinak aurkezten ditu.

Bada halako noraezezko sentipena edo nahasmen-bizikizuna mundu-mailan nahiz hurbileko inguruan gertatzen dena

⁸ Espainian egindako inkesta batean, %13ak agertzen du iritzi hori. Estatu Batuetan Gallup-ek egindako beste batean, inkestatuen %42,5ak aitortzen du behin behintzat pasatu zaiola burutik HIESa Jaungoikoak bidaliriko zigorra izan litekeela (ikus *Newsweek*, 1988.eko otsailaren 1eko zenbakia).

⁹ HIESaren ingurumarian jokoan dauden interesen adierazgarri esan ohi denez, HIESarekin bizi direnak asko izan arren, askoz ere gehiago dira HIESaren kontura bizi direnak.

ulertzeko ahalegina egiterakoan. Ez dira oraindik jazoriko al-daketak norbereganatu. Honek zorabioa edo beldurra sortarazten du, bakarreko kontuetan zein, hala berean, elkar-tekoetan.

Era bitara adi daiteke gaurko egoera hau: apurka apurka egunen batean baretuko den behin-behineko gertakizuna bailitzan edo, bestela, hemendik aurrera halabeharrez horrela izango denaren peskizaz. Oraingoz, bederen, badiruri bigarren ikuspegia irretzen dela garaile, adibidez, arazo garrantzitsurik asko mundu-mailan baitira konpondu behar; arazo garrantzitsurik asko ez baitira isolatuta agertzen, beste arazo garrantzitsu batzuekin lotuta baizik.

XX. Mende-bukaerako erronkak

1. *Solidaritza*

XVIII. mendean hozitu zen Ilustrazioak gizakiari dagokion subjektutasuna aldarrikatzen zuen, hau da, gizon-emakume guztiak euren buruaren jabe izatera iristaraztea hartu zuen helburutzat. Horretarako, bere ustetan, beharrezkoa zen arrazoimena erabiltzen ausartzea.

Historikoki, ordea, jakina denez, gutxi batzuk baino ez dira subjektu izatera heldu: gizon-emakume xumeenei, esate baterako, ez zaie aukera hori ahalbideratu. Ilustrazioak arrazoimen teknikoa eta azterketarako erabili izan du (aditza baina ez dago nolako ardurak dauden *teknikoak* deritzetenen eskuetan), baina ahaztu egin du arrazoimenari hein berean dagokion neurrialdi solidarioa. Hargatik, bada, neurrialdi hau gogoran duen Ilustrazioaren errotikako ilustrazioa da egiteke dagoen gaur-gaurko betebeharra.

Arrazoimen teknikoa erabiliz, mendebaldeko gizartea erabat aseturikoen gizartea bilakatu izan da; bakoitzak berea ondo konponduta izaki, besteenaz ezer gutxi arduratzen dena, hots, besteen saminarean berririk eduki nahi ez duena, bere erantzunkizuna

izango ez balitz legez¹⁰. *Etekinik handiena* lortzea da indarrean dagoen ekonomi sistemaren helburua. Irizpide horren arabera, dena dago etekin hori lortzearen menpe: askatasuna, zoriontasuna, elkar-bizitza, adiskidetasuna, sexualitatea, etab. Lehiakortasuna da behin betirako iritsi ezin den halabeharrezko amets gazi-gozoa, *etekinik handiena* lortzeko ezinbesteko baldintza edo bitartekoa baita. Honetan, baina, kontraesanak agerikoak dira; adibidez, nabariena ez izan arren, ondoko hau litzateke askoren artean usuenetariko bat: aldi batzuetan kontsumorako deia egiten da eta horretarako bideak errazten, eta, beste zenbaitetan, gerrikougela estutzea eskatzen da, batetik besterako jarrera berrezkotasunez aldatuko balute bezala hiritarrek. Itauna da ea zertarako den lehiakortasuna edota *etekinik handiena*, ea norantza abiatzen den geroago eta abiada handiagoz guzti horren atzetik doan sorgin-gurpila. Eraikitze-bidean dabilen Europaren erronketariko bat ere —handiena ez bada, txikiena ez dena, behintzat—, ekonomi mailako batasunaren ginetik, Akta Bakarrean eta Maastricht-eko Tratatuan zehazturiko politika- eta gizarte-mailako batasunera ailegatzea da. Herrialde batek ez du gura besteak baino gizarte-sentiberatasun handiagoa izan, gizarte-zerbitzuak zabaltzen dituen heinean lehiakortasun-ahalmena galtzen duelako. Auschwitz-ekoaren ostean *poesiak* ez duela zentzurik esan izan da. Ez dirudi, hala ere, gizon-emakumeek orduko gertaeren bitartez gauza berririk ikasi dutenik, Mendebaldetik kanpo eta Mendebaldean bertan ere hamaika gizon-emakume baitira *berriotza-bidean* jarriak, duintasunezko bizitza izateko gutxiengo baldintzak ukatzen baitzaizkie.

¹⁰ Orain dela bi urte eta piku, Liverpool-eko 10 urte inguruko bi mutikok beste txikiago bat hil zutenean, honelako izenburuak argitaratu ziren Ingalaterrako egunkarietan: "Erahiltzeko jaiok", "Munstroak izatez". Ezaguna da dagoeneko Liverpool-eko auzo pobre batean bizi izan zirela mutikook eta oidalako arazoak jasan behar izan zituztela euren gurasoengandik ere, bannanduta baitziren batzuk eta bestetarikoren batek edan egiten baitzuen. Ez da zurt egitekoa, bada, horrelako giro batek baldintzaturik nortasun-garapenean arazoak izatea. Giro hori, baina, berez erne al da? Ez al da guztion erantzunkizuna horrelako egoerak izatea?

Gizarte aurreratuagoa eraikitzea da Mendebaldeko berealditako asmoa ez ezik, grina. Zein irizpideren arabera neurtzen da, baina, aurrerakuntza: politika-, ekonomi eta gizarte-mailetan, besteak beste? Urrutiko adibide bat harturik, hor da Liberariaren egoera. Bost urtetik gora dira gudate zibilean murgilduta dagoena laborategi gisa sorturiko nazio hau. Joan den apirilaren 5ean, horraitio, indarberritu egin ziren gatazkak, eta bertan bizi izan ziren kanpotarren ardura bizia hartu zuten euren jatorrizko nazioetako gobernuek eta bestek. Hauen egoera konpondu oostean, Liberariaren egoeran, berriz, inor gutxi erreparatzen da. Nazioarteko faltsukeriazko harremanen biktima gordinak bitakatu dira petroliorik ez daukan lurralde honetako biztanleak, hodol-husten eta hiltzen ari diren gizon-emakumeak. Hala ere, zoritxarraren ondikoz, ez dago horren urruti joan beharrik adibideen bila. Norbera ikutzen ez duen bitartean besteen arazoak ez baitira norberaren arazotzat hartzen, baldin eta ate-ondoan badira ere.

Historian injustiziaren zioz sufritzen ari direnei buruz berba egiterakoan, baina, ez da ahaztu behar ez direla datu soilak esku artean erabilitakoak, aurpegidun hezur eta mamizko pertsonak baizik: aukera bat emanez gero, euren begirada norberarenean pausatuko luketenak; halanola, langabetuak, aterpebakoak, pentsio barregarriak jasotzen dituzten adinekoak, gaisoak, tratu buragarriak jasaten dituzten etorkinak, bizitzan besterik ikasi ez dutenaren ondorioz kartzelaratuak direnak, drogazaleak, hiesadunak, bizitzeko prostituziora jo behar duten emakumeak eta gizonezkoak, lehenengo lanposturik aurkitu ez duten gazteak, lan egin behar duten umeak, bizikera duina eragozten zaion oro eta, azken batean, bizia ukatzen zaien guztiak¹¹.

¹¹ Gizarteko behartsuenei lagundu behar zaiela entzutean, badira behartsuotariko asko ez direla piztia makalak argudiatzen dutenak. Horiei eskeiniriko laguntza, baina, ez luke egon behar *onak* izatera baldintzatuta. Kasu baterako, Bilboko *Bilbao La Vieja* auzoan jaio den mutiko-neskatiletariko askok beste jokabide bat izango lukete ziur asko, baldin eta beste tokiren batean jaio izan balira.

Inork ez du gura hauen egoera horrela gerta dadin, baina gutxi batzuk baino ez dute ahaleginik egiten zerbait eraldatzeko. Haatik, ezin daiteke itxaron egoera berez aldatuko denik. Ez dirudi beste biderik dagoenik: ahal dutenek ezin dutenen alde beharko dute egin, kontuan izanik norberaren interesen aurka beharko dela ekin behin baino gehiagotan, guztiontzat hedatu ezin daitekeen eskubidea ez dela gizatasunezko eskubidea delako oinarria bultzagarritzat harturik¹². Halatan, behartsuenci erantzutearen arabera egiaztatuko da politika-, ekonomi eta, orohar, gizarte-erabakien bidezotasuna, horien behineneko beharrezanezi erantzuten bazaie besteenei ere erantzungo zaion seinale baita.

Bi hitzetan esanda, bada, solidaritza, pertsonen artekoa eta nazioartekoa, da mende-bukacrako erronketariko bat.

2. Kulturen arteko elkar-bizitza eta norberetasuna

Alemanian eta Frantzian lehenagotik ere nabaritzen bazen etorkinen mugimendua, Espainian eta Hego Euskal Herrian urteotan hasi da zertxobait gehiago igartzen euren eragina. Hala ere, zenbakiak, beren hotzean, ez dira horren beldurgarriak: 370 milioi biztanletik 12 dira etorkinak Europan, hau da, %3,5a¹³. Zenbakiak, baina, zenbaki baino ez dira; arazoa etorkinak auzokide direnean sortzen da, eta batez ere etorkinok kultura guztiz ezberdinen batetakoak direnean edo, are gehiago, bizitzeko adina baldin ez badute.

Honezaz gain, kulturen arteko elkar-bizitza delako arazoak badu beste neurrialdi bat ere. Aurreko ataleko bigarren puntuan esan bezala, gaur egun eskuerara du mundu zabala —behinik

¹² Untze modura, beharrezkoa ote da oportetan Benidorm-era joatea?, hantketxean kreditu bat eskatzeraino?, beharrezkoa ote da autoa edukitzea?, zenbat erropa eduki behar ote da armarioan?...

¹³ Datuok Eurostat-ek 1996.eko maiatzean argitara emandako txostenik jasotak dira, hau da, zentsaturiko etorkinei dagozkie; esan ohi da, ordea, zentsatu gabek ere kontuan izanik, gutxi gorabehera 20ren bat milioi etorkin izango direla Europan gaur egun.

behin— mendebaldeko ia edonork, halako mundu estandarizatu bat sortzeko aukera/arriskua agerikoa delarik. Bestalde, beriz, ezaguna da gizabanakoari bere-berea den bakantasuna dagokiola¹⁴ eta, halaber, elkarteak eskeintzen dizkion sustrai-antzeko gutxiengo batzuk behar dituela, halanola, hizkuntza, historia, familia, erakunde batzuk, etab., beti ere hauek folklore soil bihurtzen ez direla, eguneroko bizitzarekin halabeharrezko lotura zuzena duten erreferentzia baino.

Esandakoak esanda, beraz, unibertsaltasuna eta norbakoitzatasuna biak bietara gogoan dituen kulturarteko gizartea osatzea da gaur eguneko erronketariko beste bat.

3. Jarrera jakin bat landu beharra

Historian zehar ikus daitekeen moduan, nekez hel daiteke pertsona betea izatera baldin eta inguruak laguntzen ez badu; eta hala beretsu alderantziz ere: ez da erraza ingurune gizatiarra izatea ingurune hori eraikitzeko gizon-emakume sotilik izan gabe. Atalki honetan, bigarren hori gogoan izanik, jazoe-rak hain azkarrak eta aldaketak horren handiak diren aldi honetan beharrezkoa litzatekeen jarrera jakin bat aurkeztu nahi da, norberaren eta ingurukoaren historiaren euskarri, eguneroko ihardunaren zentzugarri eta etorkizunari adi bilbaturiko egitasmoen bultzagarri izan nahi lukeen jarrera, hain zuzen ere.

Hiru lirateke, besteak beste, jarrera honen ezaugarriak:

a. *Errealitatearekiko zintzotasuna*. Errealitatea gizatasunez eraiki nahi duenarentzat ezinbesteko baldintza da errealitatean gertatzen dena ikusten jakitea. Honek eskatzen du, lehenengo eta behin, ezagutu nahi izatea eta norberaren aurreritziez jabetzea, eta bigarrenez, begiratzen jakitea, honetarako halabeharrezkoa delarik toki egokia aukeratzea, ikuspegiak zeharo

¹⁴ Adibidez, ederki asko izan zuten guzti hau gogoan joan den udazkenean *Renault Mégane* automobilaren publizitatea egiterakoan, estandarizatu den gizarte honetan norbakoitzari dagokion norberetasunaren amuzkia aurretik jarririk eskeintzen baitzuten ekoizkina.

baldintzatzen baitu ikusgaia. Errealitatea gizatasunez eraiki nahi duenak, bestalde, zabalik izan beharko du errealitateak eskeintzen dituen aukeretan erreparatzeko eta, ahal duen neurrian, eurok gauza daitezten bideak labakitzeko edo lantzeko, ezelan ere ez duela izan daitekeena ukatzen dagoeneko lortua denaren aitzakiaz.

b. *Sufritzen dagoenaren egoerara hurbiltzeko jarrera.* Historian sufritzen dagoenak bizi duen egoera da errealitatea zintzotasunez aditzeko lekua. Sufritzen dagoenarekin bat egitean, bestetara susmatu ere ezin daitezkeen errealitatearen neurrialdiak aurkitzen dira. Horrela jokatzeko duenak sufritzen dagoenaren aurpegiarekin egiten du topo, eta bere barruarekin eta bere hustasunarekin eta bere gorrotoarekin eta bere tristurarekin eta bere poztasunarekin eta bere asmoekin eta bere... itxaropenarekin, baldin eta apurren bat gelditzen bazaio; eta konturatzen da itxaropen hori dela zuzpertzeko behar duena, onartezina delako sufritzen dagoenari itxaropena bera ere itoztea, jakin badakielako itxaropena izateari itxaroten dena iristeko bidean jartzea dagokiola.

c. *Austeritatea.* Errealitatearekiko zintzoa izan gurean sufritzen dagoenarengana gerturatzen dena, austeritatean oinarrituriko bizikera hartzea gonbidatua sentitzen da. Hau ez, baina, asketikagatik edo moralismoagatik edo nahimen hutsalagatik, ezta behartuta edo bortxatuta ere, erraieran ainguraturiko liluragatik baino: lilura nekegarria neurri batean, baina asegarri gertatzen dena modu berean. Ikusten du erantzuna askatasun osoaz eman behar duela eta, aldi berean, askatasun hori solidaritate-jarreraz onduriko erantzunkizunaz baizik ezin duela edukiz bete. Bizikera hau, horrenbestez, ez du bikain, garbi edo aukeratu batzuren kontua baino ez bailitzan ulertzen, norbere bizitza bizigarri dela baldin eta besteena ere bizigarri bada pentsatzen dutenen oroena baino; eta honek daroa bizitzan zer den garrantzitsua eta zer garrantzibakoa bereiztaraztera.

Badirudi datozen urteetako eginkizunetarikoa bat zenbait baloreren esanahia argitzea izango dela, halanola, askatasunarena, solidaritatearena, erantzunkizunarena, justiziarena, etab., eta, ondoren, ea euron aldeko aukera egiteko gogoia norainokoa den galdetzea, batez ere Mendebaldean. Horretan ihardunik, bereizi egin beharko da baloreen mundua eta burut daitezkeen ekintzen arteko aldea, beti ere ahalik eta gehien egiten delarik gizon-emakume guztiak bere baitan hartzen dituen gizatasunezko errealitatea osatzeko bidean¹⁵.

Antzeman daitekeenez, hemen aipaturiko erronkak sozalismoari, abertzaletasunari eta beste politika zein ideologi aukera guztiei aurkezten zaizkie, eta, halaber, baita eliza zein fede ezberdinei ere, jokoan baitago egiten duten eskeintzaren sinesgarritasuna.

Josu Penades Bilbao

¹⁵ Esan gabe doa bizitzan eginkizun hau ez dela hemen adieraziriko kronologia berbera jarraituz betetzen, osorotasunez burutzen den iharduna baita.